**2018ko UZTAILAK 18ko BILERAN DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEko BATZAR OROKORRAK ONARTUTAKO ERABAKIA**

**ACUERDO ADOPTADO POR LA JUNTA GENERAL DE LA MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA, EN SESIÓN CELEBRADA CON FECHA 18 DE JULIO DE 2018**

BADESA SAUri EGINDAKO ESPARRU-ENKARGUA ETA ENKARGU ESPEZIFIKOAK, KONTRATUEN ARAUDI BERRIRA EGOKITUAK, AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA. BADESA SAU BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATU GISA HAR DADIN ONARTZEA. TARIFA-SISTEMA ONARTZEA. SOZIETATEA ENKARGUAK BETETZEKO GAI DELA DIOEN DEKLARAZIOA

ESTUDIO Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ENCARGO MARCO Y ENCARGOS ESPECÍFICOS A BADESA, SAU, ADAPTADO A LA NUEVA NORMATIVA DE CONTRATOS. APROBACIÓN DE LA CONSIDERACIÓN DE BADESA, SAU COMO MEDIO PROPIO PERSONIFICADO. APROBACIÓN DEL SISTEMA TARIFARIO. DECLARACIÓN DE SUFICIENCIA DE LA SOCIEDAD PARA EL CUMPLIMIENTO DE LOS ENCARGOS

Ondoren adierazten den erabakia hartu da eta Kontratazio Plataforman eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen webgune korporatiboan argitaratzea erabaki da.

Se adopta el siguiente acuerdo y su publicación en la Plataforma de Contratación y página corporativa de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

BADESA, BITARTEKO PROPIO PERTSONIFIKATUA

BADESA, MEDIO PROPIO PERSONIFICADO

Badesa SAU Debabarrena Eskualdeko mankomunitatearen bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa da.

Badesa S.A.U. es medio propio y servicio técnico de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

Hitzarmen enkargatu espezifikoak

- Hondakinak biltzeko zerbitzua, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko bazkide diren udalerrien eremuan; gaikako bilketa mota guztiak biltzen ditu.
- Kale-garbiketa zerbitzua, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko bazkide diren udalerrien eremuan; gaikako bilketa mota guztiak biltzen ditu.
- Tailer-zerbitzua.
- Aholkularitza ekonomiko eta finantzarioa, teknikoa eta kudeaketarakoa, eskura dituen

Convenios-encargados específicos

- Servicio de recogida de residuos en el ámbito de los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, que incluye la totalidad de las recogidas selectivas.
- Servicio de limpieza viaria, en el ámbito de los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, que incluye la totalidad de las recogidas selectivas.
- Servicio de taller.
- Servicio de asesoramiento económico financiero, técnico, de gestión con los

barne-bitartekoekin.

- Estolderia-garbiketari laguntzeko zerbitzua.
- Garbigunearen kudeaketari laguntzeko zerbitzua.

Hitzarmen-enkargu espezifiko bakoitzaren xedea

Hondakinak biltzeko zerbitzua, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko bazkide diren udalerrien eremuan; gaikako bilketa mota guztiak biltzen ditu, eta bere xedea da herriguneetan, landa-eremuetan eta industrietan kokatuta dauden edukiontzietan utzitako hiri-hondakinak biltzea Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen udalerri bazkideek barnean hartzen duten eremu geografikoan.

Bananduta biltzen dira errefusa eta zati organikoa, eta hondakin horiek GHK SAUri entregatzen zaizkio, bertan tratatzeko.

Badesak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatetik kobratzen dituen tarifak biltzen dituzten aurrekontu-partidak.

medios internos que dispone.

- Servicio de apoyo a la limpieza del alcantarillado.
- Servicio de apoyo a la gestión del Garbigune.

Objeto de cada convenio-encargo específico

El objeto del Servicio de recogida de residuos en el ámbito de los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, que incluye la totalidad de las recogidas selectivas, consiste en la recogida de los RU depositados en los contenedores ubicados en los cascos urbanos, en las zonas rurales y a las industrias en el ámbito geográfico que comprende y abarcan los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

Son recogidas de forma separada las fracciones resto y la fracción orgánica y estos residuos son entregados a GHK, SAU para su tratamiento.

Partidas presupuestarias que recogen las tarifas que Badesa cobra de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

| Partida-zenbakia / Núm. Partida | Kontzeptua / Concepto | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|
| 1.1070.227.99.162.10.18 | Badesa bilketa / Badesa recogida | 1.079.121,60 € |
| 1.1070.227.99.162.20.18 | Badesa kudeaketa / Badesa gestión | 1.220.499,40 € |

Tarifaren justifikazioa: Tarifak honako hauek biltzen ditu: hondakinen bilketa- eta garraio-zerbitzuari atxikitako langileen kostua, gastu arrunta, finantza-gastua, langileei emandako maileguen itzulketa eta ibilgetuaren amortizazioa.

Kalkulatutako tarifek BEZa barnean hartzen dute eta normalki zerbitzua eman eta 30 egunera kobratzen dira.

Hirugarrenekin kontratatutakoaren portzentajea % 78,41 da. Hirugarren gisa ulertzen dira gastu arrunta, kreditu-erakundeei maileguak itzultzea eta 2018an egitea aurreikusten diren inbertsioak.

Justificación de la tarifa: La tarifa equivale al coste del personal adscrito al servicio de recogida y transporte de los residuos, más el gasto corriente, el gasto financiero, la devolución de préstamos al personal y la amortización del inmovilizado.

Las tarifas calculadas incluyen el IVA y habitualmente se cobran a los 30 días de la prestación del servicio.

El porcentaje de contratación con terceros es del 78,41%. Se entienden como terceros el gasto corriente, la devolución de los préstamos a las entidades de crédito y las inversiones que

Hiri-hondakinen bilketa-zerbitzuaren hitzarmen-enkarguaren epea 30 urtekoa da.

Kale-garbiketa zerbitzua, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko bazkide diren udalerrien eremuan; gaikako bilketa mota guztiak biltzen ditu, eta bere xedea da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen udalerri bazkide guztietako herriguneen garbiketa. Zerbitzu hau ematen da peoiak, kale-garbiketako eskuzko makinak erabiltzen dituzten peoiak eta kale-garbiketako makina autopropultsatuak gidatzen dituzten gidariak erabiliz.

Era berean zerbitzu komunak ematen zaizkie udalerri guztiei, adibidez kaleak ureztatzea zisterna-kamioiekin eta 2.000 litroko edukierako ureztatzeko makinekin. Era berean, galtzadak eta herriguneak garbitzen dira une berezietan, adibidez herriko eta auzoetako jaietan eta mota guztietako ekitaldien ospakizunean.

Badesak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatetik kobratzen dituen tarifak biltzen dituzten aurrekontu-partidak.

se prevé realizar en 2018.

El plazo del convenio-encargo del servicio de recogida de RU es de 30 años.

Es objeto de Servicio de limpieza viaria, en el ámbito de los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, que incluye la totalidad de las recogidas selectivas, la limpieza de los cascos urbanos de todos los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena. Este servicio se presta utilizando peones, peones conductores que utilizan máquinas barredoras manuales y conductores que manejan máquinas barredoras autopropulsadas.

Se prestan también servicios comunes a todos los municipios como son el baldeo de las calles con camiones cisterna y con máquinas baldeadoras de una capacidad de 2.000 litros. Asimismo, se limpian las calzadas y cascos urbanos en ocasiones especiales como fiestas locales, de barrio y en todo tipo de celebración de eventos.

Partidas presupuestarias que recogen las tarifas que Badesa cobra de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

| Partida-zenbakia / Núm. Partida | Kontzeptua / Concepto | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|
| 1.2010.227.99.163.00.18 | Badesa kale-garbiketa<br>Badesa limpieza viaria | 2.335.593,00 € |

Tarifaren justifikazioa: Tarifak honako hauek biltzen ditu: kale-garbiketako zerbitzuari atxikitako langileen kostua, gastu arrunta, finantza-gastua, langileei emandako maileguen itzulketa eta ibilgetuaren amortizazioa.

Kalkulatutako tarifek BEZa barnean hartzen dute eta normalki zerbitzua eman eta 30 egunera kobratzen dira.

Hirugarrenekin kontratatutakoaren portzentajea % 23,45 da. Hirugarren gisa ulertzen dira gastu arrunta, kreditu-erakundeei maileguak itzultzea

Justificación de la tarifa: La tarifa equivale al coste del personal adscrito al servicio de limpieza viaria, más el gasto corriente, el gasto financiero, la devolución de préstamos al personal y la amortización del inmovilizado.

Las tarifas calculadas incluyen el IVA y habitualmente se cobran a los 30 días de la prestación del servicio.

El porcentaje de contratación con terceros es del 23,45%. Se entienden como terceros el gasto corriente, la devolución de los préstamos

eta 2018an egitea aurreikusten diren inbertsioak.

Kale-garbiketako zerbitzuaren hitzarmen-enkarguaren epea 30 urtekoa da.

Tailer-zerbitzuaren xedea da Badesak hiri-hondakinen bilketarako eta kale-garbiketarako zerbitzuak emateko erabiltzen dituen ibilgailuen konponketa mekanikoa egitea.
Badesak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatetik kobratzen dituen tarifak biltzen dituzten aurrekontu-partidak.

a las entidades de crédito y las inversiones que se prevé realizar en 2018.
El plazo del convenio-encargo del servicio de limpieza viaria es de 30 años.

Es objeto del Servicio de taller, la reparación mecánica de los vehículos que Badesa utiliza para la prestación de los servicios de recogida de RU y de limpieza viaria.
Partidas presupuestarias que recogen las tarifas que Badesa cobra de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

| Partida-zenbakia / Núm. Partida | Kontzeptua / Concepto | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|
| 1.5100.227.99.162.20.18 | Badesa tailerra kudeaketa<br>Badesa taller gestión | 118.996,02 € |
| 1.5100.227.99.163.00.18 | Badesa tailerra garbiketa<br>Badesa taller limpieza | 61.300,98 € |

Tarifaren justifikazioa: Tarifak honako hauek biltzen ditu: tailer-zerbitzuari atxikitako langileen kostua, gastu arrunta, finantza-gastua, langileei emandako maileguen itzulketa eta ibilgetuaren amortizazioa.
Kalkulatutako tarifek BEZa barnean hartzen dute eta normalki zerbitzua eman eta 30 egunera kobratzen dira.
Hirugarrenekin kontratatutakoaren portzentajea % 26,86 da. Hirugarren gisa ulertzen dira gastu arrunta, kreditu-erakundeei maileguak itzultzea eta 2018an egitea aurreikusten diren inbertsioak.

Tailer-zerbitzuaren hitzarmen-enkarguaren epea 30 urtekoa da.

Aholkularitza ekonomiko eta finantzarioa, teknikoa eta kudeaketarakoa, eskura dituen barne-bitartekoekin, eta bere xedea da sozietatearen kudeaketa ekonomikoa egitea. Era berean, langileen kudeaketa administratiboa, hala zuzeneko laneskuarena nola zeharkako laneskuarena, langileak kontratatzeko, langileak hautatzeko, nominak egiteko, kontabilitatearen

Justificación de la tarifa: La tarifa equivale al coste del personal adscrito al servicio del taller, más el gasto corriente, el gasto financiero, la devolución de préstamos al personal y la amortización del inmovilizado.
Las tarifas calculadas incluyen el IVA y habitualmente se cobran a los 30 días de la prestación del servicio.
El porcentaje de contratación con terceros es del 26,86%. Se entienden como terceros el gasto corriente, la devolución de los préstamos a las entidades de crédito y las inversiones que se prevé realizar en 2018.
El plazo del convenio-encargo del servicio de taller es de 30 años.

Es objeto del servicio de asesoramiento económico financiero, técnico, de gestión con los medios internos que dispone, la gestión económica de la sociedad. La gestión administrativa del personal tanto de la mano de obra directa como de la mano de obra indirecta, en las tareas de contratación de personal, selección de personal, confección de

jarraipena egiteko, tarifak kobratzeko, diru-laguntzak lortzeko, suntsikorren hornidurak eta inbertsioak egiteko, komunikazioko, ingurumen-jarraipeneko, laneko segurtasun eta osasuneko zereginetan eta abar.

nóminas, seguimiento contable, el cobro de las tarifas, la obtención de subvenciones, la realización del suministro de fungibles e inversiones, las labores de comunicación, de seguimiento ambiental, de seguridad y salud en el trabajo, etc.

Badesak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatetik kobratzen dituen tarifak biltzen dituzten aurrekontu-partidak.

Partidas presupuestarias que recogen las tarifas que Badesa cobra de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

| Partida-zenbakia / Núm. Partida | Kontzeptua / Concepto | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|
| 1.4200.227.99.920.00.18 | Badesa Administrazio orokorra<br>Badesa Administración general | 500.781,38 € |
| 1.4200.227.99.931.00.18 | Badesa finantza-administrazioa<br>Badesa Administración financiera | 109.927,62 € |

Tarifaren justifikazioa: Tarifak honako hauek biltzen ditu: administrazio-zerbitzuari atxikitako langileen kostua, gastu arrunta, finantza-gastua, langileei emandako maileguen itzulketa eta ibilgetuaren amortizazioa.
Kalkulatutako tarifek BEZa barnean hartzen dute eta normalki zerbitzua eman eta 30 egunera kobratzen dira.
Hirugarrenekin kontratatutakoaren portzentajea % 16,67 da. Hirugarren gisa ulertzen dira gastu arrunta, kreditu-erakundeei maileguak itzultzea eta 2018an egitea aurreikusten diren inbertsioak.

Justificación de la tarifa: La tarifa equivale al coste del personal adscrito al servicio de administración, más el gasto corriente, el gasto financiero, la devolución de préstamos al personal y la amortización del inmovilizado.
Las tarifas calculadas incluyen el IVA y habitualmente se cobran a los 30 días de la prestación del servicio.
El porcentaje de contratación con terceros es del 16,67%. Se entienden como terceros el gasto corriente, la devolución de los préstamos a las entidades de crédito y las inversiones que se prevé realizar en 2018.

Administrazio-zerbitzuaren hitzarmen-enkarguaren epea 30 urtekoa da.

El plazo del convenio-encargo del servicio de administración es de 30 años.

Estolderia-garbiketari laguntzeko zerbitzuaren xedea da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen bazkide diren udalerri guztien euri-uren sareen mantentze- eta garbiketa-lanak egitea, baita lurperatutako edukiontziak kokatuta dauden zuloen garbiketa ere.

Es objeto del servicio de apoyo a la limpieza del alcantarillado, la realización de las tareas de mantenimiento y limpieza de las redes de aguas pluviales de todos los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, así como la limpieza de los fosos donde están ubicados los contenedores soterrados.

Badesak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatetik kobratzen dituen tarifak biltzen dituzten aurrekontu-partidak.

Partidas presupuestarias que recogen las tarifas que Badesa cobra de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

# DEBABARRENA
Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal

| Partida-zenbakia / Núm. Partida | Kontzeptua / Concepto | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|
| 1.8000.227.99.160.00.18 | Badesa estolderia<br>Badesa alcantarillado | 102.565,00 € |

Tarifaren justifikazioa: Tarifak honako hauek biltzen ditu: estolderiaren garbiketa-zerbitzuari atxikitako langileen kostua, gastu arrunta, finantza-gastua, langileei emandako maileguen itzulketa eta ibilgetuaren amortizazioa.

Justificación de la tarifa: La tarifa equivale al coste del personal adscrito al servicio de limpieza del alcantarillado, más el gasto corriente, el gasto financiero, la devolución de préstamos al personal y la amortización del inmovilizado.

Kalkulatutako tarifek BEZa barnean hartzen dute eta normalki zerbitzua eman eta 30 egunera kobratzen dira.

Las tarifas calculadas incluyen el IVA y habitualmente se cobran a los 30 días de la prestación del servicio.

Hirugarrenekin kontratatutakoaren portzentajea % 19,35 da. Hirugarren gisa ulertzen dira gastu arrunta, kreditu-erakundeei maileguak itzultzea eta 2018an egitea aurreikusten diren inbertsioak.

El porcentaje de contratación con terceros es del 19,35%. Se entienden como terceros el gasto corriente, la devolución de los préstamos a las entidades de crédito y las inversiones que se prevé realizar en 2018.

Estolderiaren garbiketa-zerbitzuaren hitzarmen-enkarguaren epea 30 urtekoa da.

El plazo del convenio-encargo del servicio de limpieza del alcantarillado es de 30 años.

Garbigunearen kudeaketari laguntzeko zerbitzuaren xedea da Ermuko, Eibarko, Elgoibarko eta Mutrikuko udalerrietan kokatutako Garbiguneen mantentze-lanari laguntza puntuala ematea.

Es objeto del servicio de apoyo a la gestión del Garbigune, el apoyo puntual al mantenimiento de los Garbigunes ubicados en los municipios de Ermua, Eibar, Elgoibar y Mutriku.

Badesak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatetik kobratzen dituen tarifak biltzen dituzten aurrekontu-partidak.

Partidas presupuestarias que recogen las tarifas que Badesa cobra de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

| Partida-zenbakia / Núm. Partida | Kontzeptua / Concepto | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|
| 1.9300.227.99.162.30.18 | Badesa DAR | 27.761,00 € |

Tarifaren justifikazioa: Tarifak biltzen ditu instalazioen mantentze-lanerako egiten den gastua eta Garbiguneetan egiten diren inbertsioen zenbatekoa, baita inbertsioek sortzen duten finantza-gastua ere.

Justificación de la tarifa: La tarifa comprende el gasto en el que se incurre en el mantenimiento de las instalaciones y el importe de las inversiones que se realizan en los Garbigunes, así como el gasto financiero que ocasionan las inversiones.

Hirugarrenekin kontratatutakoaren portzentajea % 98,53 da. Hirugarren gisa ulertzen dira gastu arrunta, kreditu-erakundeei maileguak itzultzea

El porcentaje de contratación con terceros es del 98,53%. Se entienden como terceros el gasto corriente, la devolución de los préstamos

eta 2018an egitea aurreikusten diren inbertsioak.

Garbigunearen kudeaketari laguntzeko zerbitzuaren hitzarmen-enkarguaren epea 30 urtekoa da.

Enkargurako autosufizientzia-deklarazioa

Badesa autosufizientea da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen enkargua betetzeko. 64 langile ditu, 8 langile administrazio-zerbitzuei adskribatuta, estolderia-zerbitzuari lagun 1, garbiketa-zerbitzuari 43 lagun, hondakinak biltzeko zerbitzuari 9 lagun eta tailerrari 3 lagun.

Badesa SAUren aktiboa, 2017-12-31n auditatua, 6.333.920,78 euro zen, non ibilgetu materiala 2.988.343 euro zen.

Bere pasibo ez-korrontea, epe luzerako zorrak, 74.063,92 euro da.

Maniobra-funtsa positiboa da, 1.582.403,27 euro.

Beraz, esan behar da Badesa SAk langile nahikoak dituela, ikuspuntu kuantitatibotik nahiz kualitatibotik, ondasun materialak, hiri-hondakinak biltzeko ibilgailuak eta kale-garbiketa egiteko ibilgailuak, eta finantza-egitura nahikoa du Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari bermatzeko hark enkargatuta dituen zerbitzuak emango dituela, eta gainera kalitate- eta segurtasun-maila onarekin eman beharreko zerbitzuen jarraitutasunean.

a las entidades de crédito y las inversiones que se prevé realizar en 2018.

El plazo del convenio-encargo del servicio de apoyo a la gestión del Garbigune es de 30 años.

Declaración de autosuficiencia para el encargo

Badesa es autosuficiente para realizar el encargo de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena. El número de empleados es de 64, adscritos a los servicios de Administración 8 personas, al servicio de alcantarillado 1 persona, al servicio de limpieza 43 personas, al servicio de recogida de residuos 9 personas y al taller 3 personas.

El activo de Badesa, S.A. auditado a 31-12-2017 ascendía a 6.333.920,78 €, donde el inmovilizado material era de 2.988.343 euros.

Su pasivo no corriente, deudas a largo plazo es de 74.063,92 euros.

El fondo de maniobra es positivo y de un importe de 1.582.403,27 euros.

Por lo tanto cabe decir que Badesa, S.A. cuenta con personal suficiente tanto desde el punto de vista cuantitativo como cualitativo, con bienes materiales, vehículos de recogida de RU y vehículos para efectuar la limpieza viaria, y goza de una estructura financiera más que suficiente para garantizar a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena la prestación de los servicios que tiene encargados por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, con un buen nivel de calidad y de seguridad en la continuidad de los servicios a prestar.

PRESIDENTEA – EL PRESIDENTE
Arcadio Benítez Dávila